

René Canjura

“El Salvadorren errepresioa aplikatzen segitzen dute”

El Salvadorreko Nejapa herriko alkate da René Canjura. Udal hauteskunde garaian heldu zen Espainiara. Handik, Euskal Herrira. Gasteizen izan zen, elkartasun laguntza eske. Askotariko jendearekin mintzatu zen egonaldian: politikariak, boluntarioak, ikasleak... El Salvadorreko iraganaz, orainaz eta geroaz jardun zigun bere sorterriko gerran esku hartu zuen gizonak. Gerrillan lehen, herriko alkate gaur egun. Gizartearen aldeko borrokan ari da, esku huts bizi denak gutxienekoak behintzat izan ditzan: bizi hobe, duina.

MIEL A. ELUSTONDO
Argazkiak: Dani Blanco



Nortasun agiria

René Canjura (Nejapa, El Salvador, 1952). Filosofian lizentziaduna. Jaio zen herriko alkate da joan deneko hamasei urtean. Lehenago, gerrillarekin bat eginda jardun zuen El Salvadorreko gerrak iraun zuen hamabi urteetan. 1994an egin zuen lehenengo bidaia Espainiara. 1995ean, Madrileko aireportutik Gasteiza egin zuen zuzenean, Jose Anjel Cuerda alkate zen garaian. “Cuerda oso sentibera zen gurekiko. Dezente lagundu zigun. Beste udal batzuek %0,7 emanez ari zirenean, Gasteizek %1 ematen zuen”. Harrezkero hainbat joan-etorri egin du itsasoz alde batetik bestera, elkartasun laguntza eske. Hemen, hiritarren sosak bildu eta Hirugarren Mundu izenekoan diren failak zerbait konpontzen laguntzen saiatzen da. Hainbat azpiegitura dira ondorio Nejaan: Plaza España dute merkatu baten izena; ospitale bat, Tres Cantos; biblioteca bat, Alcorcon; kiroldegia bat, Vitoria-Gasteiz...

René Canjura, izen-deiturak.

Bai, “Mario”, gerrako izenez. Horrelakoxe gaitzizenak erabili genituen gerra izeneko erokeria hartan parte hartu genuen denok.

Kargurik izan al zenuen?

Borrokalari izan nintzela esaten dut nik. Banuen kargua, baina ez nintzen komandante izatera iritsi, adibidez.

Erokeria hitza erabili duzu.

Bai, uste dut gerra guztiak erokeria direla. Ez dago gerra justifikatuko duen ezer.

Ryszard Kapuscinski irakurtzen ari naiz tarteka. Dio gerra, berez, gizakiaren eta gizartearen baitan dagoen ahuldadearen adierazgarri dela. Gerran denok galtzen dugula. Gerra guztien kontrako dela. Izatez gero, defentsa gerra salbu.

Bai horixe. Saia zintezke azalpen bila, baina nik erokeriatzat definitzen dut gerra. Izan ere, hamaika bidegabekeria egiten dira gerran, zein

nahi aldetatik datozela ere. Guk, esaterako, El Salvadorren, zera esaten genuen: “Iraultzaren izenean egiten dugun konfiskazioa da”. Baina bestek egiten bazuen, “lapurreta” zen. Non da aldea? Gure kontzepzio ideologiko-politikoaren ikuspegian, “hilketak” egiten ziren. Bestek egin, eta “krimena”. Esadazu non dagoen ezberdintasuna. Horregatik diot gerra, izan, erokeria dela. Gerrak iraun zuen hamabi urteetan jardun nuen borrokan El Salvadorren eta benetan uste dut sekula ez zela gerra egin behar. Irakeko gerra, adibidez, geratu beharra dago. Hemen abiatu zen prozesuaren berri jakin nuenean, zera esan nuen: “Ongi etorri izan bedi gerra hau gerarazteko egiten den edozein saio”. Eta kontuan hartu hemengo gerra ez dela gure herrian izan zen hura bezain latza, baina, ahal dela, inork arma bat hartzea galarazterik baldin badago, galarazi. Horrek ez du preziorik. Barajasko hori eta! Bi latinoamerikar hilik. Eta zer zuten ikustekorik hemengo gerrarekin? Erokeria bat da!

Emigrazioa

“Guri ez zaigu gustatzen salvadortar guztiak AEBetara joan behar izatea. Oso kontu larria da. European populazioa zahartzen ari da, jendeak umerik ez dakarrelako. Han, zahartu egingo gara, gaztetxo guztiak AEBetara martxa egiten dutelako. 700 lagunek alde egiten dute egunero gure herrialdetik. Sei, zazpi mila dolar beharko lituzkete AEBetara iristeko eta, aldiz, ehun dolar bildu eta badoaz! Onenean Guatemalaraino heltzen dira. Entzungo zenuen, Heriotzerako Trena. Trena ez da geratzen, jendeak abian dela hartzen du, eta abian dela jaisten da. Elbarri mordoa da ondorioa! Salvadortar askoren errealitatea da hori. Eta, okerrago oraindik, harresia jasotzen ari dira orain AEBetan. ‘Lotsaren Harresia’ diogu guk. Berlingo harresia eraitsi, lotsagarria hura ere, eta zer eta beste harresi bat jasotzen ari dira orain! Erdi Aroko kontuak zirela uste genuen, baina batzuk, gaur egun oraindik, Erdi Aroan baino atzerago bizi dira”.

Zuen kasuan, hamabi urte iraun zuen erokeriak, 85.000 hildako...

Ez dago hainbeste heriotza justifikatuko duen ezer. Askotan gure buruko bartzari begiratu behar diogu, gatazkak direla eta ez direla. Baina zergatik ez saiatu elkar ulertzen?

Erokeria hartan parte hartu zenuen...

Hamabi urteak. Eta gaur galdetuko balidate, “Egingo al zenuke berriz?”, zera erantzungo nuke: “Asko da behin. Nahikoa da”. Horregatik poztu nintzen hemen prozesua abiarazi zutela jakin nuenean. Nahiago nuke hemen hauetako politiko gutxi-asko argiek prozesua burura eramango balute. Ez naiz hemengoa eta ez dakit askorik, baina pentsaezina da inork armen bidez horrelako borroka bat irabaztea.

Konponbidea helburu, zein da oinezkoaren egitekoa?

Oinezkoa bigarren mailako aktore da. Ez du egitekorik. Izatekotan, baliteke bi aldean artean gertatzea, eta kaltetan irtetea. Bestelakoan, nik ez dut jendetzarik ikusi, armak hartu behar direla esanez aldarrika. Alderantziz, demokrazia ikusi dut, bere on eta gaitz guztiekin, bidea egiten ari dena.

Euskal preso baten amak esan zidana datorkit gogora: “Demokraziak ez du, nahitaez, justizia esan nahi”.

Eta, seguru askorik arrazoi izango du. Baina gerra baino hobea da demokrazia ez perfektu hau. Gerta liteke zu eta biok ados ez egotea, baina nolatan hasiko gara

iritzi ezberdintasunak armen bidez eztabaidatzen? Horixe da hamabi urteko gerrak irakatsi didana, ikasi dudana. Zenbait jendek burutik nagoela esango du, edo El Salvadorren esaten ohi duten bezala, “eskuineko egin zaigu”.

Esan al dizute zuri hori, eskuineko egin zarela?

Bai, jakina. Nahiz eta CIAk ordaindu kontuok. Garai berriak aztertzeke ezintasunetik ere badatoz esamesa horiek. Alferrik da mundu globalizatuan bizi garela ukatzea. Beste alternatibarik ez dugu ezagutzen. Eraiki behar dela? Baliteke. Baina, bitartean, nola bizi mundu global honetan, ezberdintasunak hain handi izan gabe? Gutxi batzuk aberatsak, eta milaka jende eguneroko ogia nondik inguratuko izerditan.

Hedabideen jabe direnek, berriz, El Salvador ondo ari dela diote. Ekonomiaz ari dira, nonbait. “El Salvador ongi doa”. Makroekonomia arrano beltzaren pare doa, goian. Baina beldurra ematen duten lekuetara jaitsi, guk esaten dugun bezala...

“Beldurra ematen duten lekuetara”...

Bai, pobrezia bizirik dagoen lekuetara. Esango dizut: lehengo batean azterketa batzuk egiterra joan ginen halako paraje batera, etxeak jaso nahi genituen eta. Joan eta lau gaztetxo



Irabazi ezazu gutxiago

“Hain gertu duzuen Afrika ere! Kontinente horren paraderoa! Hori ere mundua da, eta aldatu beharra dago. Indartsuak ez dira saiatzen, eta guk saiatu beharra daukagu. Behin gure herrian esan nuena: gabon zaharra zetorren eta herriko umeei erregaloak egin nahi guk, udale-tik. Txinatarrek egiten dituzten jostailuak, bi-hiru egun irauten dutenak baina haurren ilusio direnak. 12.000 haur herrian eta ez genuen haiei jostailurik erosteko dirurik. Enpresei eskatu eta biz-pahiruk baino ez ziguten erantzun. Gainerakoek ezta erantzun ere, isil eta mutu, ezer gertatuko ez balitz bezala. Zera esan nien orduan: ‘Ehun peso irabazi beharrean, irabaz itzazue laurogeita hamar. Eman guri hamar, hurrei jostailuak erosteko’. Baina ezin sartu hori buruan. Irudi luke haien begietara gu ez garela gizaki. Logika horrek mugitzen du mundua sarritan, tris-tea bada ere”.

topatu genituen, antosin baten inguruan jarrita. Tortilla bat zuten, artozkoa, ontzi bat indabetan busti eta jaten. Ez zuten indabarik jaten, taloa busti besterik ez! Zein etorkizun dute gaztetxo horiek? Makroekonomia esango dute gero! Han badugu egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi denik. Askok, dolar horixe ere ez dauka. Hortaz, alferrik etorriko zaizkit niri makroekonomia kantatzen, pobrezian baino okerrago bizi denean jendea. Jakina, joan San Salvadorko Gran Viera eta hango eraikinak eta! Dotoreak, horratik! Zoragarria! Baina, atzeko aldea aztertu eta beldurra ematekoa da. Kontrasteen herrialdea da El Salvador.

Ezberdintasun sozialak itzelak omen dira...

Nik esaten dudana: “Ez dago gerra egiteko arrazoirik”, eta bestek dio: “Eta nola zuzendu egoera?”.

Gerra egiteko arrazoirik ez, borroka egiteko arrazoirik bai, inondik ere.

Bai. Gizarte borroka. Soldata duin baten aldekoa, adibidez. Han, gutxieneko soldata 150 dolarrekoa da. Baina erosketak egitera joan eta oinarritzko otarrak 500 balio dizkizu.

Eta zer sentitzen duzu Euskal Herrira etorri, Gasteiza kasu honetan, eta hemengo aberaskeria ikusita?

Poz ematen dit herri hau ikustek: lan egin duela, inbertsioak egin dituela, beste mundu bat bizitzea tokatu zaiola ikusita. Inbidia posi-

tibo moduko bat ematen dit. Nahiago nuke gure herriko ikasleek hemengoek dituzten aukera guztiak izango balituzte. Irakasle batekin mintzatu nintzen hemen lehengo batean. Gormutuen hizkuntza daki. Zera kontatu nion, nola heldu zen gure herrira brigadista bat orain dela bi urte, eta hogeita bost gormutu bildu zituela eskolan! Nik ez nekien horrelakorik. Bai, ezagutzen nituen halako eta halako gormutu, herrian ezagunak direlako eta denek iseka eta burla egiten dietelako, gaitzizena jartzen dizkietelako... baina argiak baino argiagoak direnak. Hitz egingo balute, akabo! Hain dira argiak, izan ere! Brigadista hark lana egin bai, baina, gero? Gobernu zentralak ez du jaiotzatiko gutxitasunak, edo geroztikakoak, zuzentzeko programarik. Hortaz? Eta Zapaterok udal hauteskundeetarako azken mitina egin zuenean ere, han zen emakumezko bat, gormutuentzako interprete lanak egiten. Hau beste mundu bat da.

Oraintxe esan duzu egia. Batetik, mundu globalizatuan bizi garela diozu. Bestetik, hau beste mundu bat dela. Ez ote da makroekonomia globalizatzen ari, berdintasun sozialak bigarren mailako lagata?

Berdintasun soziala da landu behar dugun alderdia. Hortxe dago koska. Herrialde aberatssek protesta egiten dute. AEBek, esaterako, eragozpenak jartzen dizkigu, esanez bi milioi eta erdi salvadortar daudela han lanean. Sarekadak egiten ditu. Jendea ezkutatuta bizi da. AEBetan dagoen salvadortar langilea ez du gringoak zuzenean kontratatzen, bere egoera erdizka legalizatu zuen salvadortarrak azpikontratatzeko du herrikidea. Gringoak gutxi ordaintzen zion, eta azpikontratatzeko duen salvadortarrak, berriz, askoz okerrago. Herrialde aberatsak ez badute funts bat abiarazten lana sortzeko, beti izango dira emigranteak. Espainiara heldu nintzenean, hogeita bost salvadortarrekin egin nuen topo aireportuan, eta ez turismoa egitera etorriak. Konbentzita nago geratzera etorri zirela. AEBek hesi beldurgarria jaso dute. Herrialde indartsuek horrela jokatzen badute, norantz doa mundu hau?

Zer du El Salvadorrek halako zigorra jasoa izateko. Hamabi urteko gerra, 85.000 hildako, sarraskia eguneroko ogi, Romero monsinorearen asasinatzea elizan, Ellacuria eta enparauen akabatzea... Zer zuten AEBek El Salvador su eta garretan iraunarazteko?

Lehen, Gerra Hotza zen aitzakia. Bateko SESB, besteko AEB. Hauek beren etxe atzeko patioetat zeukaten El Salvador eta ez zeuden prest *status quo*a aldatu nahi zuen mugimendurik onartzeko. Ondorioz, heriotza eskudroiak finantzatu zituzten, Romero monsinore-

rea asasinatu... Eta zer egin zuen Romerok, asasina zezaten? Hurkoa maitatzea predikatzen zuen, ezberdintasunak seinalatzen zituen, ahotsik ez zutenen ahotsa zen... Horregatik akabatu zuten. Jesuiten hilketa dela eta, gerrillarion arduradunak omen ziren! Odol hotzean asasinatu zituzten. Eta, asasinatu ez ezik, gerrillari leporatu nahi izan zioten! Bonba "inteligenteak" bezala da hori. Botatzen dute eta ez dakit zenbat haur hiltzen ditu. Zer bonba eta zer intelgentzia da hori, gero! Justifikatu nahi badute, bila deza-tela arrazoiren bat, baina ez deza-tela uste ergelak garenik. AEBek bost milioi dolar inbertitzen omen zituen egunero El Salvadorreko gerran. Hobeko zuten azpiegituretan inbertitu izan balute! Herrialde aberatsak bildu bai, hitzarmenak adostu bai, baina bete ez, eta betearazi ere ez El Salvadorri eta beste herri askori. Eta, nirekiko, horixe da nik onartuko nukeen interbentzio modu bakarra, ezer ez dutenei onura ekarriko dien esku hartzea, eta ez "bota" agintean jarraztea. Bota militarra, alegia.

1931z gero bata bestearen ondotik heldu ziren estatu kolpeak El Salvadorren.

Lehenengo batean galdetu zidaten hemen, ikastola batean: "Ba al duzue beste hizkuntzarik?". "Bai, nahua hizkuntza, baina desagertu egin zen, 1932ko sarraskiaren ondoren". Hogeita hamar, berrogeita hamar mila indigena asasinatu zituzten garai hartan. Beste asko, ezkutatu egin ziren, asasina ez zitzaizten. Indigenak ezkutatu, hizkuntza galdu. Urtean ehun, ehun eta berrogeita hamar bat animalia espezie galtzen omen da. Zer egiten da hori galarazteko? Balea galzorian, eta oraindik indartsuek eztabaidan segitzen dute, premiazko neurriak hartu gabe. Zertan gara, orde? Zer izan behar du honek? Ematen du ez dugula oroimen historikorik. Gurean, El Salvadorren, gerra ez da kontu zaharra, eta gerra aurreko errepresio bide berak aplikatzen segitzen dute.

Ba ote?

Bai. Asasinatzeak, bahitzeak... Gaur egun bestelakoak dira aitzakiak, baina lehengo lepotik burua. Hamabi gerra urte nahiko izan ez balira bezala!

ARENA alderdia (Aliantza Errepublikar Nazionalista), 89tik agintean... Egoera iraultzeko modurik ez?

Ezkerreko politikariak inteligenteagoak izango balira, beharbada. Baina ez dago itxurarik.

"Ezkerreko politikariak inteligenteagoak izango balira". Haiek. Non zaude zu?

Ezkerrekoa naiz, baina ez nago alderdi nagi-

AZKEN HITZA

Aran-mangoa

"Aran-mangoa, ez dago hori baino mango gozoagorik. El Salvadorren dauzkagun hogeitaka mango barietate artean, horixe onena. Jatorrizko okerra dago historian: Kristobal Kolonek urrea ekarri zuen; aldiz, hobeko zuen mango barietateak ekarri izan balitu, zuek jan eta zein gozo diren kontura zaitezten! Jan dut hemen saltzen den mangoa eta zer esango dizut bada, ez du guk jaten dugunekin ikustekorik. Gurea behatzak mihizteko modukoa da! Berdin esango nizuke aguakateari buruz. Crema-aguakatea, txute-aguakatea... Zoragarriak dira".

Behartsuaren aukerak murriz

"Lehen, kafe-soroetan mango eta aguakate arbolak zeuden. Gero, intelenteren batek esan zuen arbola haiek kalte egiten ziotela kafeari, eta erauzi egin zituzten. Bada, 70eko hamarkadaz gero gora egin zuen pobreak. Izan ere, ordura arte, nekazariak zakua hartu, finkara joan eta mangoa ekartzen zuten. Mango arbolak kafe-soroetatik kendu zituztenetik, merkatura joan behar izan zuten hura erostera; garestiago, gainera, eta sarri, ezin erosi. Errealitate horiek aldatu dute mundua, eta pobreentzako aukerak murriztu dituzte".

sietako batean ere. Kanporatu egin ninduten. FLMNkoa (Askapen Nazionalerako Fara-bundo Marti Frontea) nintzen baina azkene-ko hauteskundeetan bestelako bandera baten pean aurkeztu nintzen. FDR izeneko alderdia osatu genuen (Fronte Demokratiko Iraultzaile). Memoria eginez, FLMNren beso politikoa zen FDR. Batak tiroak botatzen zituen, besteak, elkartasuna bilatzen, dirua biltzen. Gordin esateko, dirua biltzen zuen, armak erosi eta batak bestea hiltzeko, ze armak inguratzen dituzunean horretarakoxe da, jendea hiltzeko.

Gogoan daukat mitin bat, aspaldikoa. Hemen-go herri batean zen, Lekeition, eta herri askotako ordezkariak ziren hizlari. Tartean, Fronte Sandinistakoa, Nikaraguan artean Somoza diktadoreak agintzen zuenean. Hark dirua eskatu zuen, itzulingururik gabe, armak erosteko.

Horrela izan da. Beharbada, balio zuen garai hartako. Gerra zegoen, ezberdintasun handiak... Gaur egun besterik da: zergatik ez dirua inguratu bakearen alde? Alegia, horrek zera esan nahi du, pobrezia gainditzea, hezkuntza, osasuna... Nahi baduzu oso erromantikoa izan ninteke. Horixe leporatu zidaten behin, "erromantikoa" nintzela. Baina erromantizismo horrek merezi du.

"Erromantikoa", beraz.

Bai. Pobrezia, hezkuntza, osasuna, etxebizitza... "Erromantizismoa". Japonen ikusi nuena: zazpi graduko lurrikara gertatu eta, zenbateko txikizioa? Leio bat goitik behera amildua. El Salvadorren, hondamendia izango zen ondorioa: bi, bost edo hamar mila etxebizitza eroriko ziren. Zergatik, lurrikararen indarra bera baldin bada? Ez dago iker-tzaile izan beharrik hor zer edo zer gaizki dagoela antzemateko. ■